





FIT F FOR THE FUTURE



Flandria
Abangoardia

Editore arduraduna

Julie Bynens, Flandriako Kantzilertzen Idazkari Nagusia eta Flandriako Gobernuaren
Kanpo Harremanetako Ministerioarena
Herman Teirlinck Building
Havenlaan 88 box 100
1000 Brusela

Koordinazioa

Flandriako Kantzilertza eta Kanpo Harremanak
(Roos Van de Cruys, Hanne Bauters, Flo Van den Broeck)

Maketazioa

Hearts&Minds, Brusela

Kolaboratzaileak

Auvergne-Rhône-Alpes, Baden-Württemberg, Euskadi, Katalunia, Hauts-de-France, Lombardy Region,
Lower Saxony, Free State of Saxony eta Upper Austria eskualdeetako administrazioak

Data

2024ko apirila

Gordailu-zenbakia

D/2024/3241/154

Aurkibidea

Sarrera	4
Eskualdeen erresilientziaren azterketa: Datuak eta zenbakiak	5
Metodologia: Etorkizuneko analisi estrategikoa	8
1. Zer eta zergatik?	8
2. Agertokiak eraikitze prozesua	9
3. GR4Erresilientzia agertokiak	10
Esku-hartze eremu estrategikoak	12
1. ETEak etorkizunerako prest	13
2. Europar Eskualdeak mundu digitalerako prest	16
3. Europar Eskualdeak trantsizio jasangarrirako prest	21
4. Mundu mailan lehiatzeko prest dagoen Europa	24
5. Europako eskualdeak etorkizunerako gaituta	28
Ondorioak	31
Eranskina - Eskualdeen praktika onak/egokiak	32

Sarrera

Gaur egun, Europar Batasunak zenbait erronka ditu, bai barne-dinamika bai kanpo-faktoreak hartzen dituztenak. Erronka hauek behar bezala gainditzeko, EB malgua eta moldagarria izan behar da, eta etorkizunerako prest egotearen garrantzia nabarmendu behar da, aurreikuspen estrategiko baten bitartez. Prospektiba estrategikoko Europako egungo ekimenek Europar Batasuneko politiken prestakuntzan txertatu nahi dute prospektiba hori. Modu egituratuan eta sistematikoan taldeko adimenean oinarritzen dira, trantsiziorako bide posibleen garapena hobetzen laguntzeko eta EB talkak jasateko prestatzeko: Prospektiba estrategikoko ikuspegi bat behar da, maila asko hartuko dituen gobernuko eragileen artean sinergiak eta lankidetzak sortzeko, munduko erronkei aurre egiteko.

Testuinguru hau, Flandriako Gobernuaren Ministro-Presidenteak bilera antolatu zuen Europar eskualde sendo eta berritzaileetako buruekin, erronka orokorren eta eskualdeko soluzioen inguruan hitz egiteko Belgikaren EBren Presidentziaren barruan, 2024ko urtarrileko 1etik ekainaren 30era arte. Liderren Topaketa: “Fit for the Future: Global Challenges, Regional Solutions” (Etorkizunerako prest: Erronka orokorrak, Eskualdeko soluzioak” egin zen Antwerpen 2024ko apirilaren 18an, osteguna.

Liderren Topaketa horren xedea Europar Batasunari europar eskualdeek mundu mailako erronkei aurre egiteko palanka sendoak dituztelako seinale sendoa bidaltzea zen eta, aldi berean, elkarri eskua luzatzen diete lankidetzan jarraitzeko eta EBren politika hobetzen jarraitzeko. Flandriako Gobernuak EBko eskualde sendo eta berritzaileen arteko kolaborazioaren oinarriak ezartzen saiatzen ari da. Gainera, EBko eskualde sendo eta berritzaileen konpromiso iraunkorra sustatzeko xedea du, etorkizuneko erronkei elkarrekin aurre egin ahal izateko.

Liderren Topaketaren aurreko egunetan, parte hartu zuten eskualdeek esfortzuak eta adimena elkartu zuten administrazio mailan azterketa prospektibo estrategiko bat egiteko. Hausnarketa prozesu horretan zehar, parte hartu zuten eskualdeek haien azterketa prospektibo estrategikoaren ikuspegiak trukatu zituzten, elkarrekin hausnartu zuten etorkizuneko agertoki posibleen inguruan, eta erronka komun globalak eta eskualdeko soluzioak identifikatu zituzten. Txosten honetan azterketa-prozesuaren emaitzak biltzen dira, eta lagungarria da Liderren Topaketan zehar gobernuetako liderren arteko iritzien hartu-emanerako.

Txostenaren lehen zatia barne hartzen dituen Europako eskualdeen estatistiken ikuspegi orokorra ematen du. Bigarren zatian estrategia prospektiboko ariketan jarraitutako metodologia azaltzen da. Hirugarren zatian ariketa honetan oinarritutako ekintzen bost gako-eremuak deskribatzen dira. Eskualdeen artean zein Europa mailan EBren erresilientzia maila areagotzeko dauden erronkak aztertzen ditu eta soluzio posibleak identifikatzen ditu.


Txosten honetako gomendioen implementazioa eskualde bakoitzeko instituzio-testuinguru espezifikoaren mende dago.

Eskualdeen erresilientziaren azterketa: Datuak eta zenbakiak



Biztanleak

Miloi pertsona (2022)




EB 27 biztanleria= 446,7 milioi




Biztanleria dentsitatea

Pertsona km²-ko (2022)



BPG biztanleko


euro BPG (2021)





Hazkuntza ekonomikoa

Indizea, 2019=100 (2021)



Iturria: Statistics Flanders eta EUROSTAT



Metodologia: Etorkizuneko analisi estrategikoa

1. Zer eta zergatik?

2023ko irailean eta urrian, Flandriako Kantzilertza eta Kanpoko Harremanetako Ministerioak Europako prospektiba estrategikoko hamabi eskualde gonbidatu zituzten erronka komunak eta kooperatzeko aukerak aztertzeko. Eskualdeak bi multzotan banandu ziren, eta biek egin zituzten azterketa prospektibo estrategiko berak. Eztabaida zentratzeko, lan-saioak Europako Batzordeak (EB) 2020ko Txosten Prospektibo Estrategikoan nabarmendutako erresilientziako lau dimentsioen arabera egituratu ziren. Txosten horrek erresilientzia elkarri lotutako lau dimentsioen bitartez aztertzen du -soziala eta ekonomikoa, geopolitikoa, berdea eta digitala. EBk epe luzerako helburuak lortzeko dimentsio horien garrantzia nabarmentzen du.

Bi saio paralelotan, hainbat eskualdetako parte-hartzaileek lau agertoki aztertu zituzten 2040ko horizontearekin. Agertoki horietan, parte-hartzaileek EBren erresilientziaren hurrengo dimentsioen berriazko alderdietan zentratu ziren:

- Erresilientzia berdea:
industriaren trantsizio jasangarria
- Erresilientzia geopolitikoa:
merkataritza, dibertsifikazioa eta egoitzak
- Erresilientzia digitala:
Europako etorkizun digitala bultzatzen
- Erresilientzia sozio-ekonomikoa: gaitasunak eta lan-merkatua

Kontu handiz diseinatu zen prospektiba estrategikoko taldeko bi lan-saioen metodologia, hiru eskualdek parte hartu zuten bi alderdiko prozesu zabal baten bitartez: Katalunia, Euskadi eta Ipar Rhine-Westphalia. Ikuspegi intentsifikatu horrek bi alderdiko hiru lan-saio hartu zituen barne. Haietan, ondoren eskualde guztiekin egingo ziren taldeko saioentzat oinarriak ezarri ziren.

Prospektiba estrategikoaren arloan, agertokien metodoak etorkizuneko ibilbide posibleak egungo joerak, kezkak eta indar bultzatzaileak aintzat hartuta irudikatzen dituen erreminta bat da. Ez du etorkizuna aurreikusten, baina lagungarria da emaitza posibleei aurrea hartzeko, eta kezka horren barruan erabaki informatuak hartzeko.

Prospektiban parte hartzea garrantzitsua da kezkak ezagutu eta onartzeko. Gainera, mundu mailako erronkak taldean aztertzeko balio du. Saio hauetan, EBko arduradun politikoek haien ikuspegiak partekatu zituzten kanpo-politiken inguruan, prospektiban adituek zorrotasun metodologikoa jarri zuten eta gaitan adituek arlo bakoitzeko jakintza espezifikoa.

Parte hartzen duten eskualde batzuek prospektibarako baliabiderik ez dutenez (ikus eskualdearen estrategia, lantaldea, ekintza-plana, etab.), EBren bulegoen bitartez hartu zuten parte gehienbat. EBko eskualde desberdinetako eta eremu desberdinetako adituen ikuspegi aniztasunak aukerak hedatu zituen eta ontzat hartutako hainbat baieztapen zalantzan jarri zituen. Gainera, prospektibako ariketa honek zuloak estali zituen eta diziplina arteko pentsaera sustatu zuen, ezinbestekoa egungo erronken konplexutasunean aritzeko.

2. Agertokiak eraikitzekeo prozesua

Liderren Topaketa prestatzeko fasearen testuinguruan, lau agertoki garatu ziren: Erresilientziarako Desafio Globalentzat Eskualdeko Soluzioen Agertokiak, alegia (GR4Erresilientzia agertokiak). Prozesu honen erdigunean, aldaketa globala sustatzen duten gertakari eraldatzaileak identifikatzea dago. Indar eraldatzaile horiek, Europako Batzordearen Megajoerak identifikatuak, hainbat gai kritiko lantzen dute:

- ▶ [Aldaketa teknologikoaren eta hiperkonektibitatearen azelerazioa](#)
- ▶ [Klima aldaketa eta ingurumenaren degradazioa](#)
- ▶ [Migrazioaren esanahi soziala eta politikoa areagotzea](#)
- ▶ [Desoreka demografikoen areagotzea](#)
- ▶ [Segurtasun paradigma aldaketak](#)
- ▶ [Baliabideen eskasia larriagotzea](#)
- ▶ [Etengabeko hirigintza](#)
- ▶ [Osasun erronka aldakorrak](#)




Europako Batzordearen
Megajoerei buruz gehiago
jakin

Eboluzio horiez gain, bereziki nabarmendu ziren bi faktore gakoak, kezka handia eragiten dutelako eta haiek Europako eskualdeentzat duten garrantziaren ondorioz:

1. EBren funtzionamenduaren bilakaera eta haren ondoriozko betekizun ekonomiko mundiala
2. Garapen teknologikoa eta EBn duen inplementazioa

Agertokiak garapen gako hauen ardatz bikote gisa zehazten dira: EB berrikuntzaren lider gisa ala EB berrikuntzaren jarraitzaile gisa, EB zatitua EB bateratuaren aldean. Matrize honen koadrante bakoitza agertoki bakarra da, zeinak etorkizuneko panorama posibleen ñabarduraz betetako ikuspegia eskaintzen duen.

Agertoki bakoitza hainbat iturritik ateratako datu eta seinale ahulen bitartez hobetu zen: EBren CCIren Megajoerak (2022), Munduko Ekonomia Foruaren Munduko Arriskuen inguruko Txostena (2023), Etorkizunen Plataforma eta Flandriako 2030 Ikuspegia. Iturri horiek datuen eta informazioaren balio handiko geruzak gehitu zituzten, zeinak ezinbestekoak baitira identifikatutako gako-gertakarien ñabardurak ulertzeko.



3. GR4Erresilientzia agertokiak

2040rako aurreikusitako panoraman, hurrengo lau agertoki desberdinak eztabaidatu ziren lan-saioetan:

OPTIMIZAZIO ADIMENTSUA

Agertoki honetan, Europa da berrikuntzaren eta batasunaren iparra, teknologia garatzen den inoiz izan den erritmoa bizia bada ere. Aurrerapauso teknologiko azkarrek erronka bat dira enpresentzat, arduradun politikoentzat eta gizartearentzat, oro har. Gakoa ez da bakarrik hazkuntza jasangarria bermatzea, inklusioa eta osasuntsua ere izan behar baita. Gizarte oso aurreratua sortzen da, teknologiak bultzatuako jendartea, eta EB da berrikuntzaren liderra. Eskualdeen arteko desberdintasunak murrizten dira, eta puntako teknologiak eta partekatutako aurrerapenak modu harmoniatsuan sustatzen dira. Aurrerapen teknologikoari etekina ateratzean, Europak munduan duen posizio lehiakorra sendotzen doa.

HIPER LEHIAKORTASUNA


Agertoki honetan, interkonektibitate globala, baliabide eta gatazka geoekonomikoen arteko lehiakortasuna nagusi dituen mundu bat sortzen da. Agertoki honetan, berrikuntza lider sendoen kopuru mugatu bat biziki lehiatzen da zatitutako Europa batean. Nahiz eta zatituta egon, EBk, oro har, eutsi dio bere estatusari berrikuntzako lider gisa. Halere, teknologiaren bilakaera azeleratua erronka bat da. Teknologia inoiz baino bizkorrago badao ere, maiz, onura ekonomikoak lortzeko erabiltzen da, guztion onurarako izan beharrean. Agertoki honetan, lehiakortasun basatia bizi da eskualdeetako aktoreen artean eta gizartearen interes ekonomikoen eta ongizatearen arteko oreka konplexuaren artean. Agertoki mundialean, europar berritzaileen multzo berezi batek eragin nabarmena du nitxo berrikuntzak zuzentzeko eta lehiakortasunaren dinamika konfiguratzeko orduan.

HIRI-FLUXUAK

Agertoki honetan, EBren betekizuna ahultzen duten elkarri lotutako krisialdi ugari egin behar dio aurre Europak, berrikuntza gaitasuna barne. Polikrisialdi horiek neurriak (sozialak) eragiten dituzte epe laburrean, eta berrikuntza esfortzuen inbertsioak desbideratzen dituzte. Ondorioz, inbertsio eta lankidetzaren gutxi garai batek Europak etorkizuneko talkak modu eraginkorrean kudeatzeko gaitasuna zailtzen du. Gorabehera horien tartean, tokiko soluzioetara zuzendutako aldaketa egiten da nagusi. Partekatutako komunitateak eta etxebizitzak gero eta garrantzitsuagoak izango dira, jendea ekonomia kolaboratiboan babestuko baita, bizitza garestitzen joan ahala. Hiri adimentsuen ekimenek modu digitalean erraztutako hiri bizitzaren esperientzia aparta eskaintzen dute eta Europa osoan berrikuntza zentro ugari sortuko dira. Halere, mundu mailan, EBk aurre egin beharko dio gogortutako lehiari. Gero eta lehiakortasun handiagoa egoteak kolokan jartzen EBk eragiteko izan dezakeen gaitasuna aldaketa geopolitiko dinamikoen eta etengabe bilakatzen ari den panorama geoekonomikoaren mende dagoen mundu batean.

ZILARREZKO ESFERAK

Agertoki honetan, politika monetarioetan aldaketa batek kapitala atzitzeko erraztasunari amaiera emango dio eta, ondorioz, arrakala sortuko da segurtasun globalean. Teknologia digitalean konfiantza higituko du horrek. Biztanleria zahartzen ari dela eta, Europako herrialdeek osasun gastu publikoaren presioei aurre egin beharko diete, horrek osasunerako eta ongizaterako ekimenetarako lankidetzaren sustatzen du, aurrekontu politika zehatzen bidez. Zibersegurtasunari etengabeko mehatxuek, finantza-kezkak eta zibersegurtasunaren kostu handiek zatiketa eta berrikuntzarako oztopoak eragiten dituzte. Hala ere, EB atzerriko berrikuntzarako merkatu bihurtzen da, biztanleriaren zahartzeari laguntzera eta elkartasunari eta gizarte-kohesioari lehentasuna ematera bideratuta. Nahiz eta berrikuntza jarraitzailea izan, EBk modu aktiboan aplikatzen ditu teknologia eraldatzaileak, ADN zerbitzu digitalak osasun arretarako, esaterako, gizarte erronka kritikoak lantzeko.



Esku-hartze eremu estrategikoak

Bi lan-saioen ondorioak laburtu eta esku hartzeko bost arlo estrategikotan egituratu ziren, eskualdearen eta Europar Batasunaren erresilientzia indartzera bideratuak: Etorkizunerako prest dauden ETEak, europar eskualdeak mundu digitalerako prest, europar eskualdeak trantsizio jasangarrirako prest eta eskualde europarrak etorkizunerako prest. Esku-hartzeko eremu gako bakoitzarentzat, hasteko, erronka irudikatzen da. Aurrerago, konponbideak bilatu beharko lirateke, betiere eskualdeen arteko lankidetzaren bitartez; irtenbide horietara iristeko eskualdeek Europar Batasunari laguntza handiagoa eskatuko liokete.



1. ETEak etorkizunerako prest

Enpresa Txikiak eta Ertainak (ETEak) dira gure eskualdeko ekonomiaren bultzatzaileak, eta EBrenak, oro har. Izan ere, EB osoko enpresen % 99 dira. ETE-ek irtenbide berritzaileak eskaintzen dizkiete klima aldaketa, baliabideen eraginkortasuna eta gizarte-kohesioa erronkei, esaterako, eta berrikuntza hori Europako eskualde guztietan zabaltzen laguntzen dute. Funtsezkoak dira EB ekonomia jasangarriago eta digital bateranzko trantsizio bikoitzean. Merkatu bakarra da Europako ETE-entzat merkatu nagusia, eta abantaila nabarmenak eskaintzen ditu nazioartekoratzeko zein lehiakortasun aldeetatik. Halere, badira oraindik ere ETE-ek merkatu bakarrak eskaintzen dituen abantailai etekin oso ateratzea eragozten duten oztopo teknikoak, juridikoak eta burokratikoak.

Hortaz, helburua izan beharko litzateke ETE-entzako ingurumen egokiena bihurtzea EB.

Hala ere, ETE-ek aurre egin behar diete lehiatzeko eta nazioartean hazteko erronkei; izan ere, tamaina txikia dutenez eta finantza eta giza baliabiderik ez dutenez, ezin dute merkatu berrietan sartu.

Bestalde, ETEak askotan administrazio konplexu batekin borrokatzen dira, bertako langileak hobetzeko baliabideekin, tokiko talentua erabat erabiliz, laguntza-tresna luzeekin eta merkatuaren eskari aldakorretara eta jasangarritasun-eskakizunetara bizkor egokituz. ETEak EBko eskualde gehienetan langile gehienak eta balio erantsia direnez, eta tokiko talentua ere kontrata dezaketenez, hazteko eta lehiatzeko gaitasuna mugatzen duten oztopoek eragin negatiboa izan dezakete eskualdeko ekonomiek berritzaile izateko duten gaitasunean

eta lehiatzeko. Haien tamainaren ondorioz, askotan gaitasuna eta denbora falta zaie epe luzeko lehiakortasunean eta erresilientzian.

Ezinbestekoa da ETE-ei gonbidatzea eta laguntzea haien enpresak atzerrian zabaltzen. ETE-en globalizazioak efektu positiboak ditu irabazietan, enpleguan, inbertsioan, soldatetan eta produktibitatean. Atzerrian hedatuz, ondorio hauek hauteman zitezkeen: sustatutako produktu eta zerbitzuen merkataritza, berrikuntza, produktibitatea eta lehiakortasuna, eta nazioarteko harremanak hobetu eta indartzea.

Beraz, eskualdeen arteko kooperazio handiagoa ezinbestekoa da merkataritza sistema inklusiboagoa, jasangarriagoa eta erresilienteagoa eraikitzeko.

ETE-en potentziala erabat askatzeko eta enpresak hasi eta zabaltzeko aukera emango duen ingurunea sortzeko, bai eta atzerriko eskualdeetako eta EBko gobernuak zabaltzeko ere, ETE-ei laguntzeko tresnak indartu behar dituzte eta horiek garatzeko eta nazioartekotzeko egokia den enpresa-giroan inbertitu.

Ekosistema erresilienteak eraikitzea eta konektatzea, eta araudi-esparru adimentsu bat ezartzea

Bai Europar agintariak, bai eskualdekoek hainbat estrategia eta programa ezarri dituzte ETE-en produktibitatea eta lehiakortasuna bultzatzeko. Enpresa-sistema indartsu batek berehala laguntzen die europar eskualdeei, haien ehun soziala eta ekonomikoa sendotzen duelako. Eskualdeko gobernuak eta EBk modu aktiboan lagundu beharko lieke ETE-ei ekosistema berritzailean barneratzen. Ekosistema horien ezaugarria da alderdi interesdun askok elkarri eragiten diotela, aliantzak sortzeko eta ezagutza eta garapen berriak eta berritzaileak sortzeko, kogenrazioaren eta lankidetzaren bidez. Berrikuntza-ekosistema bat hobetzen duena da parte-hartzaileek sinergiak sortzeko eta helburu komunak lortzeko lerrokatzeko duten gaitasuna; horregatik da garrantzitsua eragile aktiboa izatea. Europar eskualdeak kolaboratu dezakete ETE-ei ekosistema handiagoak ekartzeko eta jakintzak partekatzeko, mugaz haraindiko kooperazioko esparruak eraikiz.

Beste gauza garrantzitsu bat inbertsiorako eta enpresa jarduerarentzako baldintzak hobetzen jarraitu beharra garrantzitsua dela da, besteak beste, araudi sendo eta adimentsu baten bitartez, lehiakortasuna sustatzea errazteko. EBk 'eskualde lehiakor adimentsu' bat edo 'herrialdearen gune' bat eratu behar du, arau berriak egiaztatzeko.

Biztanleria eta industria dentsitate handiko gure eskualdeak, ekosistema berritzaileak, ETEak, nekazaritza eta abar aintzat hartzean datza. Esparru arautzaile adimentsuago bat sortzeko, hurrengo aldagaiak hartu ahal izango lirake kontuan:

- Arau uniformeak eta administrazio prozedura sinplifikatuak ezartzea elkarrengarritasuna eta baldintza-berdintasuna areagotzeko arau tekniko komunak ezarriz eta, aldi berean, berrikuntzarako ere tarteak utziz;
- Klima-arriskuak eta ingurumenekoak arintzeko orduan baldintza-berdintasuna bermatzea, administrazio-karga murriztuz eta elkarri lotutako esparruetan (ingurumena, industria, berrikuntza eta abar) araudien bateragarritasuna hobetuz.;
- Berariazko laguntzak eta zerga-pizgarriak edo diru-laguntzak merkatu bakarraren osotasuna babesteko;
- Herri-administrazioen artean lankidetzaren sustatzea praktika egokien hartu-emanak sustatzeko eta gainjartzen diren erronkak elkarrekin lantzeko.
- ETE-ei beharrezkoa duten laguntza bermatzea kualifikazioen gabeziari aurre egiteko, tokiko talentuari etekin osoa ateraz.

ETEak trantsizio berdean

Lehiakortasunari eutsiz enpresa-eredu iraunkoragoetarako trantsizioak erronka handiak dakarzkie ETE-ei, batez ere, diseinu ekologikoari buruzko zuzentarauaren, behar den ardurari buruzko zuzentarauaren edo txosten korporatibo iraunkorrei buruzko zuzentarauaren aurrean. Lehenengo bi ekimenek konpainia handiak bakarrik hartzen dituzte kontuan, nahiz eta ETE-ei ere eragin. EBk eta eskualdeko gobernuek funtsezko betekizuna izan behar dute ETE-ei klimari eta ingurumenari zuzendutako ekimenen inguruan informatzeko orduan, araudiaren panoramari aurre hartu eta haren bilakaerari egokitu ahal izateko. Malgutasuna eta pizgarriak beharrezkoak dira ETE-ei EBk ezarritako asmo handiko jasangarritasun helburuekin lerrokatzeko. ETE-ei prozesu honetan lagundu behar zaie, eta ingurumeneko arriskuak ulertzen lagunduko dieten tresnak eman behar zaizkie.

Tresna horietako bat kontratazio publikoa da, aldi berean hainbat helburu lortzeko erabil daitekeena, kontratu horietan diru publiko asko gastatzen baita. Europar agintariak eta tokikoek pizgarri efikazak zehaztu behar dituzte EBan berrikuntza eta jasangarritasuna bultzatzeko. Kontsumitzaile kontzientziatuen artean ETE-en sinesgarritasuna areagotzeko, ETE-ei egokitutako zirkulu formako etiketa bat barneratzea onuragarria izan daiteke, existitzen den EB ekologikoaren² osagarri gisa.

Kontratazio publikoan ETE-en arrakasta-indizea indartzeko, bai Europako bai eskualdeetako agintariak informazioa, prozedura gardenak, prestakuntza eta sinplifikatzeko neurri gehigarriak eskuratu beharko lituzkete. Eskualdeko gobernuek kanpo-aholkularitza sustatu ahal izango lukete (Europar Batasunak lagunduta) ETE-en trantsizio bikoitza bizkortzeko. Gainera, eskualdeetako indarguneei etekina ateratzea ETE-ek zuzendutako inpaktuzko ekimen ekologikoen oinarria era dezakete. Eskualdeen arteko hartu-emanen sustapenak, jakintzen eta berrikuntzaren transferentzia sustatzeaz gain, espezializazio adimentsuaren hasierari ere egokituko litzaioke. Beraz, ETE-ei ekonomia berdeak eskaintzen dituen aukerei etekina ateratzen lagunduko lieke. Are gehiago, zerbitzuak, azpiegiturak eta prestakuntza elkarlanean bateratzea katalizatzaile ahaltsua izan liteke ETE-entzat, trantsizio jasangarria lortzeko bidean, adibidez, birziklapenerako edo ekonomia zirkularrerako. Baliabideak partekatzean, ETE-ek kostuak murriztu eta praktika jasangarriak hartzea sustatzeko efikazia hobe litzake.



Eskualdeen arteko kooperazioa



1. ETE-en arteko mugaz haraindiko kooperaziorako esparruak ezartzea
2. Elkarri konektatutako eskualde berritzaileko ekosistemak
3. Inbertsio berritzaile eta jasangarria sustatzea, kontratazio publikoaren eta doako aholkularitzaren bidez
4. Sortzen ari diren enpresen arteko eskualdeen arteko trukeak, ezagutzen, berrikuntzaren eta espezializazio adimendunaren transferentzia errazteko.
5. Taldekatze, azpiegitura eta prestakuntza zerbitzuak, trantsizio iraunkorrean ETE-entzako katalizatzaile gisa
6. IPCEIrako sarbidea hobetzea (Europako interes komuneko proiektu garrantzitsuak), hala nola hidrogeno-ekoizpena, enpresa txiki eta ertainei enpresa jasangarrietarako behar diren baliabide teknologiko eta finantzarioak emateko.



1. EB merkatu bakar sakonagoa eta zabalagoa
2. Araudi-esparru sendo eta adimentsua ezartzea, «eskualde lehiakor adimentsua» edo «bihotz eremua» duena.
3. Eskualdeko ekosistema berritzaileak sortzen laguntzea
4. Inbertsio berritzaile eta jasangarria sustatzea, kontratazio publikoaren bidez
5. Enpresa txiki eta ertainei legeria ekologikoari buruzko informazio egokitu ematea, erregelamenduzko inguruneetako aldaketei aurrea hartu eta haietara egokitu ahal izateko
6. Pizgarriak eskaintzea ETE-ei ingurumen-helburuetara egokitzeko eta trantsizio iraunkorren aktiboki parte hartzeko, haien lehiakortasuna arriskuan jarri gabe

Are gehiago, IPCEIrako sarbide hobetuak (Europako interes komunekiko proiektu garrantzitsuak), hala nola hidrogeno-ekoizpena, enpresa txiki eta ertainei enpresa jasangarri bihurtzeko behar dituzten baliabide teknologiko eta finantzarioak eman ahal die. Ekimen horiek ETEak ahalduzera eta eskualdeko ekonomiak indartzera eraman ditzakete, aurrerapen kolektiboa etorkizun iraunkorragorantz bideratuz.

Erronka sozialei eta ingurumenekoei erantzuna ematen dieten enpresei zerga-murrizketak aplikatzea lagungarria izan daiteke ETE-entzat. Horrek, aipaturiko beste neurriez gain, ingurune aproposa sortuko luke ETE-ek enpresa eredu jasangarriagoetarantz igarotzeko, euren lehiakortasuna galdu gabe, hurrengo legeri ekologikora begira bereziki.

2. Europar Eskualdeak mundu digitalerako prest

Garapen teknologikoaren panorama dinamikoan, europar eskualdeek etorkizunerako prestatutako teknologia digital seguru eta fidagarri batzuk bermatu behar dituzte. Behar hori nabarmentzen da onartzen delako datuak funtsezko baliabideak direla hazkunde ekonomikorako, lehiakortasunerako, berrikuntzarako eta enplegua sortzeko eta gizartearen aurrerapen zabalagoa lortzeko. Datuak dira produktu eta zerbitzu berri askoren oinarria, produktibitatea eta baliabideen efizientzia sustatzen dute ekonomiaren sektore guztietan, eta produktu eta zerbitzu

pertsonalizuagoak ahalbidetzen dituzte, politikak egitea hobetzen dute eta zerbitzu publikoak modernizatzen dituzte. Datuak lortzea, batez ere kualitatiboak, denbora errealean eta metadatuetan, funtsezkoa da adimen artifizialeko sistemak sortzeko; izan ere, produktuak eta zerbitzuak azkar igarotzen dira ereduak onartzetik eta ideiak sortzetik aurreikuspen-teknika sofistikatuagoetara eta, beraz, erabaki hobeetara. Aldiz, adimen artifizialak aukera eman lezake erabiltzailearen izenean datuak garbitzeko, behar bezala entrenatuta dagoenean.



Eskualdeetako gobernuek gero eta datu-iturri gehiago erabiltzen dituzte egungo erronkei hobeto aurre egiteko eta maila estrategikoan, taktikoan nahiz operatiboan erabakiak hartzeko. Kontuan hartu hiri-plangintzarako datu-iturriak erabiltzen dituzten eskualdeetako gobernuen adibide espezifikoak. Biztanleriaren unean uneko datu demografikoak, trafikokoak eta ingurumen eragileak erabil ditzakete erabaki informatuak hartzeko. Horrek azpiegitura-proiektu iraunkorrak diseinatzea, trafiko-fluxuak optimizatzea eta hiriko bizigarritasun orokorra hobetzeko neurriak aplikatzea ekar lezake. Baliabide eta ezagutza horiek bateratzean, Europako eskualdeek eraginkortasunez erabil dezakete eskura dauden datuen aberastasuna, berrikuntza bultzatuz eta arazoak ezagutzuz erabakiak hartuz. Hala ere, eskualdeetako gobernuek hainbat erronka dituzte datuen erabilera zabalitzean.

Datuen potentziala askatzeko, EBk eta Europako eskualdeek hainbat erronkari heldu behar diete. Bi dira oztopo nagusiak ingurune juridikoaren eta azpiegituraren inguruan (digitala). Desafio horiek konpontzeko, lankidetzaz-ahaleginak egin behar dira, honakoak kontuan hartuta: esparru juridikoak harmonizatzea, elkarri eragin ahal izatea sustatzea, azpiegitura digitaletan inbertitzea eta zibersegurtasuneko neurriak hobetzea.

Gainera, Europako eskualdeek erronka sozial ugari dituzte digitalizazioari dagokionez, hala nola eten digitala gaitzitzea, parte-hartze inklusiboa eta alfabetizazio digitala sustatzea, lantzea kontzientziazioa, konfiantza eta esperientzia, eta inbertsioa, banaka, maila profesionalean eta

instituzionalean. Oro har, datuen kudeaketak eta aldaketa teknologikoak gizarte digitaletan dituzten ondorio kaltegarriak saihestu behar dira dilema etikoei aurrea hartuz, demokrazia, giza eskubideak eta abar babestuz. Europako eskualdeek hainbat esparrutan jardun dezakete aro digitalaren konplexutasunetan nabigatzeko eta herritarrak, enpresak eta haien zerbitzuak mundu digitalerako egokiagoak izan daitezzen.

Eskualdeen arteko kooperazioa



1. Eskualdeen arteko espazio isolatu bat sortzea
2. Elkarrekin, partekatutako azpiegitura digitaletan inbertitzea
3. Lankidetzaz hobetzea eten digitala gaitzitzeko
4. Hezkuntza-sistemak nola aldatu eztabaidatzea, pentsamendu kritikoa azpimarratuz eta alfabetatze digitala hobetuz
5. Herri-administrazioaren eraldaketa digitala eztabaidatzea
6. Segurtasun digitaleko adituak erakartzeko jardunbide egokiak trukitzea
7. Eskualdeko tokiko txapeldunen lana trukitzea eta haiekin elkartzea

Datuen gobernantza harmonizatzea: berrikuntzaren eta pribatutasunaren babesa orekatzea

Ingurune juridiko harmonizaturik ez izateak erronka handia dakar datuak erabili eta babesteko. Mundua gero eta gehiago mugitzen den neurrian, datu pertsonalen babesa eta pertsonen pribatutasun-eskubideen bermea funtsezkoak dira. EBk badu Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO), datuak babesteko esparru orokorra eskaintzen duena. Halere, etengabeko erronka da DBEO hori modu eraginkorrean aplikatzea.

Datu-fluxuek, sarritan, datuak aurkitzeko murriztapenak eta betekizunak izaten dituzte, bai EBren mugen barruan, bai mugetatik kanpo. Datuen zirkulazio librearen murrizketek mugatu egiten dute EBko datu-ekonomia bateratu eta interkonektatuaren garapena. Hala, EBko merkatu bakar digitala sendotuko litzake. Estatu kideen artean arauak eta erregelamenduak arrazionalizatzeak erraztu egingo du datuen fluxua, mugen bidez berrikuntza eta lankidetzaz sustatuko ditu, eta aukera emango die sortzen ari diren enpresei eta ETE-ei beren jarduerak Batasun osoan eta Batasunetik kanpo zabaltzeko. Beraz, ezinbestekoa da oreka aurkitzea datuen babesaren eta datuak partekatze eta berrerabiltzeko aukeraren artean. Eskualdeko eta nazioko alderdiak bateratzeko ahalegin itunduen bidez eta Europako datu-politikek, eskualdeek oreka hori lortzen lagun dezakete.

Gainera, goraka doazen teknologien araudia eta normalkuntza, adimen artifiziala, Gauzen Internet (IoT) eta blockchain direlakoa, esaterako, erronka juridikoak planteatzen dituzte. Azken aldira, EBren Araudien eta Zuzentarauen zerrenda luze bat barneratu dira arlo digitalean. Horrek enpresek bete behar dituzten erronkak dakartza.

Berrikuntza sustatzen duten, eta aldi berean baldintza etikoak babesten eta datuen erabileraren erantzukizuna bermatzen duten politikak eta araudiak garatzea ataza konplexua da. Araudiak helburuak betetzen dituztela ziurtatzeko, funtsezkoa da alderdi interesatu desberdinekin kolaboratzea, industriako liderrak, ikerketa-erakundeak, azken erabiltzaileak eta erakunde arautzaileak barne. Haien esperientziaren ondorioz, eta alderdi interesatuak gertu daudenez, eskualdeek funtsezko betekizuna izango dute esparru juridiko digitala aplikatzeko orduan. Eten gabe lan eginez, praktika egokiak partekatuz eta metodo komunak egokituz, eskualdeek merkatu bakar digitalaren amortizazio handiagoa bermatu dezakete. EBko biztanleen Eskubideak babesteko eta, aldi berean, gure enpresei oso berritzaileak izateko aukera emateko, araudi eta politika digitalen aplikazioak prozedura burokratikoak arintzea eskatzen du.

Eskualdeak bereziki ongi kokatuta daude hainbat teknologia probatzeko, balioztatze eta berresteko, AA, kuantikoa, 5G sare handiak, edge computing eta datu zentroak, esaterako. Azpiegitura horrek datu eraginkorrak prozesatu eta gordetzea bermatzen du, enpresei aukera emanez berritzeko eta beren produktu eta zerbitzuak azkarrago merkaturatzeko. EBko programen bidez –hala nola Europa Digitaleko Programen bidez edo nazioko eta eskualdeetako politiken bidez– azpiegitura hori abian jarri zein ez, funtsezkoa da eskualdeen arteko lankidetzaz. Praktika egokiak partekatzen, estandarrak koordinatzen eta haien azpiegitura beste eskualdeen eskura jarriaz, eskualdeek esparru benetan paneuroparra eta estatuen artekoa sor dezakete.

EBren laguntza eskualdeentzat



1. Esparru juridiko digital harmonizatua ezartzea
2. EBko merkatu digital bakarra sendotzea
3. Ekosistema digitalaren erraztaile bat sortzeko aukera aztertzea

Gainera, AA gero eta gehiago erabiltzen da osasun-laguntzan, eta horrek klinikoen eraginkortasuna hobetzeko, diagnostikoko eta tratamendu medikoko protokoloak hobetzeko eta giza baliabideen eta baliabide teknikoaren esleipena optimizatzeko aukera ematen du. Aldaketa eraldatzaile horrek arriskuaren ebaluazioaren eta kudeaketaren ikuspegi sistematikoa hartzea eskatzen du, AA integratzeak dakartzan erronka tekniko, kliniko, legal eta etikoak berariaz landuko dituen, bereziki osasunaren eta medikuntzaren arloetan. EBk marko sendoak jarri behar ditu pribatutasun-arauetarako eta indarrean dauden arauak betetzeko, hala nola DBEO, pazientearen informazioa babesteko. AAren aplikazioetan kontuak emateko eta gardentasunerako jarraibideak ezartzea eta erakunde erregulatuak egokitzea funtsezkoa da erantzukizunaren erronkei aurre egiteko. Osasun arretan AA barneratzea arduraz sustatzeko, EBk arauak garatzeko, bazkideak hezteko eta aldizka arauak eguneratzeko aurrerapen teknologikoen arabera egokitzekeo esfortzuak zuzendu beharko lituzke.

Eten digitala gaintzea

Eten digitala murrizteko ahaleginek aurrera egin dute azken hamarkadan, baina oraindik ere erronka ugari daude. Gizarte-bazterketa arrisku handia da, eta nabarmendu behar da beharrezkoa dela Interneten eta zerbitzu digitaletan sartzeko eremu kritikoetan, hala nola osasunean, hezkuntzan eta zerbitzu publikoetan. Beraz, garrantzitsua da banda zabaleko abiaduren eta sortzen ari diren teknologien (adibidez, AA) arteko aldeak minimizatzea hiri- eta landa-eremuen artean eta EBko estatu kideen artean. Europako eskualdeen eta estatu kideetako agintari publikoen arteko lankidetzaren indartua ezinbestekoa da gero eta handiagoa den eten digitalari aurre egiteko.

Berrikuntzak eta eraldaketa digitalak industriak eta gizarteak berritzen jarraitzen duten neurrian, datuen kudeaketa alderdi kritikoa bihurtzen ari da, eraginkortasuna ez ezik, baita ere bermatzeko, pribatutasuna, segurtasuna eta lehiakortasun leialaz gain. Hortaz, ekosistemaren erraztaile bat ezartzeko aukera, gobernu-erakunde neutral bat esaterako, azter daiteke. Ekosistemaren bideratzaile gisa diharduen gobernu-erakunde neutral batek datu-bitartekari lana egin lezake, eskualde edo herrialde bakoitzaren barruko datu-transferentziak kudeatuz eta gainbegiraturik. Ikuspegi horren azterketa ikuspegi estrategikoa berrikuntzaren eta eraldaketa digitalaren arloetan irtenbide globalak bilatzeko kontuan hartzea da.

Bukatzeke, zibersegurtasuneko Europako estrategia sendoagoa eta osoagoa behar da. Azpiegitura digitalen babes hutsetik haratago hedatu beharko litzateke, aktiboki sustatuz zibersegurtasun-ekosistema dinamikoa, eremu digitaletan berrikuntza eta aurrerapen jasangarria sustatuko dituen.

Ekonomia digitaletan parte-hartze inklusiboa bermatzeko, ezinbestekoa da Internetarako sarbide irekia eta eskuragarria ematea denentzat. Pentsamendu kritikoa eta alfabetatze digitala azpimarratzen dituen eskualdeko hezkuntzaren erreformaren bidez pertsonak ahaldundzea funtsezkoa da. Inklusibitatea sustatzeko, makinekin hizkuntza anitzeko komunikazioa gehitu daitezke, eta teknologia berritzaileak aztertu, errealitate birtuala eta adimen artifiziala, esaterako. Eskualdeetako gobernuak eginkizun erabakigarria dute administrazio publikoko zerbitzuak digitalki zabaltzeko, gardentasuna sustatzeko eta irisgarritasuna hobetzeko.



Tokiko erakundeen alfabetatze digitala indartu dezakete, hezkuntza-programak aro digitalaren beharretara egokituz. Aplikazioari buruzko tresna multzoak eta orientazioa eskaintzeak teknika berriak eraginkortasunez aprobetxatzeko ahalmena eman diezaieke toki entitateei. Gainera, talentu digitala garatzea eta gaitasuna eraikitzea ezinbestekoak dira digitalizazioa arrakastatsua izateko.

Hala ere, talentuaren ihesak erronka garrantzitsu bat planteatzen du, eta agerian jartzen du EBean etorkizun handiko talentu digitalari eusteko beharra, teknologia digitalak bultzatutako etorkizunerako trantsizio arin eta eraginkorra lortzeko. Europar Batasunak talentu handia du, baina kontua da nola eutsi. Irtenbide bat enpresa berrien eta berrikuntza-zentroen sorrera sustatzea da, ITetako profesionali proiektuak eta ikerketa murrizten laguntzeko aukera emango dietenak.

Teknologia digitaletan konfiantza

Datuen sorkuntza handitu ahala, funtsezkoa da Europako balio eta eskubideekin bat datozen banakako interesei lehenetsia ematea. Datuetan oinarritutako berrikuntzetan konfiantza izateko, ezinbestekoa da EBko datuak babesteko arauak betetzea. Digitalizazioa eta arauen zatiketa mugaz gaindikoak izateak konfiantza eta eraginkortasuna ahultzen ditu, datuen subiranotasunari eta mehatxu zibernetikoei buruzko kezka areagotuz. Jurisdikzio guztietan zatikatutako arau-panorama batek konfiantza higatzen du, eta informazio sentikorra babesteko eskatzen du, segurtasunaren eta babesaren arloan gero eta erronka handiagoei aurre egiteko.

Gainera, eskualdeetako gobernuek gehiago inbertitu beharko lukete segurtasun digitaleko adituengan, segurtasun digitalaren funtsezko zeregina onartuz.

Aditu horiek sistema digitalen sendotasuna hobetu dezakete, segurtasuna indartuz eta gobernuak informazio sentikorra babesteko duen gaitasunean herritarren konfiantza sartuz.

Herritarren konfiantzako tokiko txapeldunekin elkartzea eraldaketa digitalaren eta onarpen publikoaren arteko tartearen ixteko estrategia potentziala da.

Hori lortzeko, probatutako konektore teknologiko eta fidagarriak (adibidez, banku-aplikazioak edo gobernuaren interakzio-plataformak) teknologia berri eta are berritzaileagoetan proba litezke.



3. Europar Eskualdeak trantsizio jasangarrirako prest

Europako eskualdeetako trantsizio jasangarriak erronka ugari ditu, txosten honetan azaldutakoetatik askoz haratago doazenak. Funtsean, trantsizio horrek ekonomia zirkular baterako aldaketa eskatzen du: baliabideak berrerabili, hondakinak ahalik eta gehien murriztu, barne-merkatuko oztopoak ezabatu eta teknologia berriztagarriek erregai fosilak ordezkatzeko dituzte klima-aldaketa arintzeko. Oraindik ere oztopo ugari daude gainditzeko.

Erronka garrantzitsu bat, adibidez, «bidezko trantsizio» bat ezartzea da, langileen eta komunitateen artean kargak eta onurak modu bidezkoan banatzea bermatuko duena. Nahitaez hartu behar dira kontuan trantsizio jasangarrien inpaktu soziala eta ekonomikoa. Ekonomia sozialak etorkizun handia du erronka horri aurre egiteko, balio-kate zirkularretan parte hartuz. Ingurumen-eragina positiboak sustatzeaz gain, desberdintasun sozial eta ekonomikoak ere lantzen ditu.

Gizarte-ekonomiako antolakundeek funtsezko eginkizuna dute lanpostu duinak sortzeko eta prestakuntza-aukerak emateko, eta, hartara, aukera iraunkorretara igarotzen laguntzen diete kaltetuei.

Are gehiago, hazkunde ekonomikoa garrantzitsua den arren, biodibertsitaterako eta ekosistemetarako erronkak ere planteatu ditzake. Gure planetako inpaktuak arintzeko, beharrezkoa da garapen ekonomikoa ingurumen-kudeaketarekin orekatzea. Biodibertsitatea galtzea, ur-eskasia eta uholdeak, adibidez, konponbide berritzaileak behar dituzten arazo konplexuak dira. 2050erako klimarekiko gizarte neutrala lortzeko, Europako Itun Berdean adostu zen bezala, erronka hori modu eraginkorrean zuzentzeko, behar-beharrezkoa da inbertsio nabarmenak egitea eta eskualdeak lankidetzan aritzea.

Baliabideen kudeaketan eta teknologia berdearen garapenean laguntzea

Trantsizio digitalaren ondorioz dauden baliabideen gaineko presioaren ondorioz sortu da premia-kezka, baita beste sektore estrategiko batzuen presioaren ondorioz ere, hala nola energia berriztagarriak, industria digitala, sektore aeroespaziala eta defentsaren sektorea.

Lehengai kritikoen inguruko oztopo geopolitikoek are gehiago azpimarratzen dute erronka hori.

Teknologia jasangarrien hornikuntza-kateen egonkortasuna bermatzeko, beharrezkoa da nazioarteko lankidetzaren eta Europa barruko material eta teknologia berdeen ekoizpena areagotzea. Gainera, ezinbestekoa da

lehengaiak eraginkortasunez birziklatzea. Lehengaien hornidura segurua eta jasangarria erauzketa- eta eraiste-instalazioetan eta hondakinen barne-merkatuan oinarritu daiteke. Kontuan hartu behar da ezagutzak, esperientziak eta teknologiak elkarri trukatzeko eta azpiegitura komunak sortzeko. Proiektu honetan parte hartuko duten eskualdeentzat, ibilgailu elektrikoaren baterien birziklatze eraginkorra funtsezkoa da automobilgintzarako, Europako ekonomiaren giltzarria baita.

Trantsizio jasagarria finantzatzeko inbertsio handia behar da. Energiaren Nazioarteko Agentziaren (ENA) arabera, 2050ean neutraltasun klimatikorako behar diren emisio-murrizketen ia % 50 oraindik merkatuan ez dauden teknologietatik etorriko dira; enpresek, berriz, inbertsio-ziklo bakarra dute 2050etik aurrera. Beharrezkoak izango dira finantzazio mekanismoak eta lankidetzak publiko-pribatu solidoak trantsizio jasagarria lortzeko.

Horrez gain, energia-mendekotasuna izateko kezka beharrezkoa egiten du energia iturrien dibertsifikazioa arriskuak arintzeko eta denontzako energia-segurtasuna bermatzeko. Gainera, energia berriztagarriak garatzeko banaketa geografiko desberdinak zailtasunak sortzen ditu baliabide horiek modu eraginkorrean aprobetxatzeko eta EBko helburu klimatikoak lortzeko. Planifikazio eta inbertsio estrategikoak energia-bilketan, sarearen hobekuntzan eta gisa horretako tenologia berrietan funtsezkoak dira, eskualdeen arteko energia-egoera orekatzeko. Azpiegituren arloan mugaz gaindiko lankidetzak funtsezkoak da energia-segurtasunerako, eskualdeen eta herrialdeen arteko mendekotasun gehigarria ematen baitu, eta horrek horniduraren segurtasuna hobetzen baitu. EBk garrantzi ekonomiko eta/edo geostrategiko bereziko azpiegitura-proiektuekin konprometitu behar du, esaterako, Burdinazko Rhin delakoa edo nazioarteko hidrogeno-garraioa. Gure eskualdeko itsas-portuak prest daude euren lana egiteko.

Baina barne-nabigazioa ekologizatzeko ere lagundu dezake neutraltasun klimatikorako trantsizioan.

Hala ere, ikus dezakegu beste garraiobide batzuen atzetik doala. Hori, neurri batean, sektore horren egitura espezifikoari zor zaio (batez ere, ETEak/ontzi baten edo biren jabe diren familia-enpresak), eta, beraz, finantziario lortzea zailagoa da. Baina klima-aldaketak ur-garraioan duen eragin orokorrarekin ere lotuta dago EBn. Gehiago egin beharko genuke, EBren laguntzarekin, muturreko ur maila altuek (uholdeek eraginda) edo ur baxuek (lehortearen ondorioz) gure balio-kateak ez aldatzeko.

Mentalitate zirkular bat sustatzea

Gizartea ekonomia zirkular zirrargarri, bidezko eta erresiliente bateranzko eraldaketak tokiko komunitateen mentalitate aldaketa eskatzen du. Hezkuntza eta sentsibilizazio-kanpainak funtsezko zeregina dute ekonomia zirkularraren inguruko mitoak uxatzeko eta munduko kontsumoak ingurumenean eta gizartean dituen ondorioak hobeto ulertzeko, eta, aldi berean, ekonomia ireki baten merezimenduak onartzeko.

Trantsizio hori azeleratzeko gakoa gizarte ekonomiaren eta abangoardiako ekonomiaren arteko lankidetzak da. Balio-kate osoan elkarrekin lan eginez, sektore horiek praktika zirkularrak sustatzen, hondakinak murrizten eta baliabideen erabilera maximizatzen lagun dezakete.

Birziklatze-ahaleginetarako pizgarri monetarioek eta ingurumena errespetatzen duten kontsumitzaileen erabakiek portaera arduratsua sustatu lezakete, eta horrek erabiltzaileen segurtasuna areagotuko du haien kontsumo-aukeretan (esaterako auto hibridoak ala elektrikoak aukeratzean). Horrez gain, tokiko ekonomia zirkularra ere indar dezake horrek. EBko herritarrek euren industria eta produktu nazionalen balioa aintzat hartzen badute, EBko enpresek onarpen eta laguntza handiagoa izan dezakete, funtsezko materialen, teknologiaren eta energiaren ekoizpenean parte hartzen dutenek barne.

Tokiko ekoizpena tokian bertan kontsumitzeko aukera bat izan liteke, ez bakarrik eskualdeetako ekonomia sendotzeko, munduko merkatuen

Eskualdeen arteko kooperazioa



1. **Teknologia jasagarrietarako hornidurakate egonkorak bermatzeko funtsezkoak diren lehengaien arloan laguntzea**XDFGAERG
2. **Azpiegituretan mugaz gaindiko lankidetzak, garrantzi ekonomiko eta/edo geostrategikoko proiektuetan**

mendekotasuna murrizteko ere bai. Halere, merkatu bakarraren eta nazioarteko merkataritza-arauak errespetatu egin behar dira eta efizientziari eutsi egin behar zaio.

Gainera, garrantzitsua da enpresa-praktika arduratsuetarako kultura-aldaketa sustatzea. «Product as a Service» bezalako ekimenek enpresak kontsumitzaileei produktuak alokatzera bultza ditzakete. Ikuspegi horrek produktuaren bizitza sustatuko luke, eta maximizatu egingo luke baliabideen erabilera optimoa. Beraz, nahitaezkoa da produktuen bizikloaren ikuspegia hartzea, merkataritza-jardueren jasangarritasuna ebaluatzeko.

Araudi jasangarria eraikitzea

Funtsezko beste alderdi bat ekonomia zirkularra eta industriren eraldaketa jasangarria bultzatzeko esparru-baldintzak hobetzea da. Horrek esan nahi du araudien egoera findu egin behar dela, ingurumenaren iraunkortasuna eta zirkulartasuna lortzeko inbertsioak eta enpresa-praktikak sustatzeko. Arau eta jarraibide komunak ezartzen dituzten aplikazio-erregelamenduek produktu iraunkor eta konpongarrietarako aldaketa bultza dezakete. Estandarizazioa ez litzateke mugatu beharko EBren barne-merkatura.

Arau multilateralen alde lan egitean, EB normalizazio-tresna global bihurtzeko, Europako industriari lehiarako abantaila emango liokeena eta, aldi berean, munduko lehiabaldintzak berdinduko lituzkeena.

Gainera, orientazio batek eta arau argi batzuek espazio-plangintza jasangarria eta egokitze-espazioa berrerabiltzea bultza lezakete. Irizpideak sar daitezke, adibidez, inpaktu ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa neurtzeko, jasangarritasun helburuekin bat datoze la ziurtatze aldera.

Gainera, erregulazio-esparru sendoa behar da, EBko mugikortasunari buruzko datuak eta ondasunen eta zerbitzuen merkaturak modu eraginkorrean partekatzeko. Esparru horren barruan datuak modu seguruan trukatzeko arauak baliabideen esleipena eta hondakinen murrizketa hobetuko lituzkete. Horrek esan nahi du, halaber, lan-fluxuak produktuen sorrerarekin integratu behar direla, eta horrek baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzea eta eskualdeen arteko lankidetzaz ahalbidetuko lukeela.



EBren laguntza eskualdeentzat



1. Araudien egoera fintzea ingurumenaren iraunkortasuna eta zirkulartasuna lortzeko inbertsioak eta enpresa-praktikak sustatzeko
2. Trantsizio jasangarria bultzatzeko finantziario-mekanismo berritzaileak eta elkarte publiko eta pribatuak
3. Energia berriztagarrien proiektuetarako eta garraio-azpiegituretarako mugaz gaindiko lankidetzaz erraztea



4. Mundu mailan lehiatzeko prest dagoen Europa

Mundu globalizatuan eta egungo testuinguru geopolitikoan, Europako eskualdeek erronka garrantzitsuei egin behar diete aurre, merkataritzari, dibertsifikazioari, mendekotasunei eta segurtasun ekonomikoari dagokienez. Erronka horiei aurre egiteko, beharrezkoa da itundutako ahalegina egitea, Europar Batasunak bere lehiakortasunari eta munduko balio-kateetan duen posizioari eusteko, arauak ezartzeko gaitasun globala barne.

EBren mundu-boterea gutxitzeak eta testuinguru geopolitiko zailak EBrekiko mendekotasuna sortu dute, bereziki baliabide kritikoei, ondasunei, zerbitzuei eta teknologiei dagokienez. Funtsezko arloetan autonomia estrategikoa galtzeko beldurrak eraginda, batzuek neurri babesleak hartu dituzte. Beste batzuek merkataritza politikak birplanteatu dituzte eta hornidura-kateak laburtu dituzte funtsezko gaientzat. Gure ikuspegiaren arabera, garrantzitsua da autonomia estrategiko irekiaren alde borrokatzea. Horrek bi oinarri izan beharko lituzke: EBren lehiakortasuna indartzea eta balio-kateak dibertsifikatzea nazioarteko hainbat elkarteren bidez.

Protektionismora jo gabe lehiakortasuna indartzeko, EBk hainbat ekintza egin beharko lituzke merkatu bakarra –Europako produktibitatearen eta oparotasunaren indar nagusia– sakondu eta zabaltzeko. Horrek bat etorri beharko luke Europako industria- eta berrikuntza-politika indartu eta zentratuarekin, nazioarteko hainbat elkarteren laguntzarekin.

Berrikuntza eta kolaborazioa sustatzea I+G arloan

Berrikuntza sustatzeko, Horizon Europe programak gero eta garrantzi handiagoa du. Programaren nondik norakoak oso handiak direnez, gainerako iraupenerako finantza-esleipen handiagoak eta Urte Anitzeko Finantza Esparruan (UAFE) hurrengo finantzazuzkidurak hobetzea eskatzen du, eta, aldi berean, bikaintasunaren oinarriko printzipioari egokitu behar zaio. Horizon Europe programaren aurrekontuak ez luke behar bezala finantzatu behar ekimen politiko berriak; aldiz, EBko beste proiektu batzuekiko sinergiak aprobetxatu beharko lirateke. AA erabiliz Horizon Europako proiektuen datu-basea sortzeko, adibidez, lankidetzeta eta sinergia posiblei buruzko ezagutza baliotsuak eman ditzake. Gainjartzen diren edo elkar ukitzen diren interesak eta eta berrikuntza-proiektu osagarriak identifikatuta, Europak bere baliabideak arrazionalizatu, bikoizketak saihestu eta estatu kideen eta eskualdeen, ikerketa-erakundeen eta enpresen arteko lankidetzeta sustatu dezake.

Garrantzitsua da, baita ere, ikerketa eta garapenaren balorizazioa hobetuko litzatekeela. Programa berriak garatzen direnean edo lehendik daudenak ebaluatzen direnean, funtsezkoa da EBko ikerketa-politikaren indarguneei eustea, adibidez, behetik gorako berrikuntza berrmatzea. Halere, funtsezkoa da, baita ere, indargune horiek jakintza erakundeen, Industria eragileen, gobernuen eta gizarteko eragileen arteko lankidetzarako eredu berriekin osatzea (helize laukoitza). Horrek onurak ekarri beharko lituzke, gizartearen beharrei eta ondoriozko aplikazioen merkaturatzeari zuzenean erantzuten dieten ikerketa-proiektu zehatzak hobeto finantzatzea barne. Horrela, Europaren garrantzia areagotuko genuke nazioarteko mailan, eta bikoizketa garestiak saihestuko genituzke (esaterako, elektrifikazioan elkarrekin lan egiten duten automobilgintzako sektoreetan erdieroaleak eta digitalizazioa beharrezkoa da). Bikaintasunaren logikari eutsi behar zaio.

Gainera, kohesio-politika ere funtsezkoa da eskualdeko ikerketa, garapena eta berrikuntza bultzatzeko. Bakarra da gure ekosistema industrialetan inbertitzeko eta berritzeko behar diren ahaleginak egiteko aukera ematen duelako, gure ETE-etatik ahalik eta hurbilen. Etorkizuneko kohesio-politikak eskualdeetan trantsizio bikiaren alde egiten jarraitu behar du. Horren inguruan, garrantzitsua da kohesio politika horrek eskualdeei laguntzea berriazko erronkei aurre egiten, baita ekonomia sendoa duten eskualde berritzaileei ere. EB osoaren interes estrategikoan dago,



EBren laguntza eskualdeentzat



1. EBko herritarrak heztea kontsumo globalak ingurumenean eta gizartean dituen eraginaren gainean, egoitza EBn duten enpresei laguntza handiagoa emateko eta tokiko industriari suspertzeko
2. Merkatu bakarra sakondu eta zabaltzeko ekintzei ekitea
3. Berrikuntza eta kolaborazioa sustatzea I+G arloan
4. Kohesio politika moderno batera zuzendutako lana eskualdeetan trantsizio bikiaren zentratuta
5. Estatuko laguntzen erabilera merkatuko akatsetara mugatzea, industria lehiakortasun globalaren, krisialdien edo merkatu berrietara hedatzearen testuinguruan sakon aldatzen den bitartean
6. EB mailako azpiegituretan inbertitzea hornidura-kate integratua kudeatzeko
7. Nazioarteko elkarteak zabaltzea merkataritzako akordio zabalen bidez
8. Gaitasun multilateral (tekniko) estandarrean inbertitzea

bilakaera azkarreko berrikuntza-ingurune baten testuinguruan, oso berritzaileak diren industria-eta ekonomia-taldeak laguntzen eta indartzen ditu, beren hornikuntza-kateetan eragile ekonomikoentzat eragiten dituzten ondorio positiboak direla eta.

Eskualdeko kudeaketa-agintarien eta Europako Batzordearen arteko eta Batzordearen zerbitzuen arteko trukeak areagotzeak Europa Horizontearen eta kohesio-politikaren arteko sinergiak indartu ditzake, eta, aldi berean, Europa Horizonteko bikaintasun-printzipioari eutsi. Honek gardentasuna, trinkotasuna eta bi instrumentuen arteko garrantzia areagotzen lagunduko luke. EBk lan egin beharko luke, gainera, kohesio politika errazago eta modernoago bat lortzeko, epe luzerako helburuekin konpromisoari eusten diena, eta hazteko aukera nahikoa duena, esaterako, ikerketan eta berrikuntzan inbertituz. Funts horien kudeaketa partekatua babestu beharko litzateke.

Ezinbestekoa da eskualdeko ekosistemen eta EBko talde-politikaren arteko loturak indartzea berrikuntza eta lehiakortasuna sustatzeko. Enpresen eta ikerketa-erakundeen artean lankidetzaren handiagoa izateak berrikuntza sustatuko du eta EBren lehiarako abantaila handituko du. Zentzu horretan, gure I+Gren indarguneei eta berrikuntzari eustea zenbait sektore kritikotan, hala nola txipetan (erdieroaleak), eta AAK behetik gorako ikuspegia eskatuko du, eta, horren osagarri, ezagutza-erakundeen eta industria-eragileen arteko lankidetzaren eredu berria ezarriko da. Ikuspegi horren bidez, aterako diren aplikazioen merkaturatze eta balorizazio hobetua lortuko da, ikuspegi hori bikaintasun-logika baten bidez gidatzen bada.

EBren posizioa sendotzea balio-kate globalean

Balio-kate globaletan EBren posizioari eusteko, ezinbestekoa litzake Europa konektatua eraikitzea. Ildo honetan, ezinbestekoa da EB mailako azpiegituretan inbertitzea hornidura-kate integratua kudeatzeko, trazabilitate-sistemak barne, balio-kateen fidagarritasuna eta erresistentzia bermatze aldera. Ongi ezarritako azpiegitura batek EBri lagundu ahal dio eragozpenei erantzuten eta hornidura-kateen gardentasuna hobetzen. Eskualdeen arteko konektibitatea eta lankidetzaren hobetzeko baliabideak esleitzea ere hartzen du honek baitan. Barnean elkarri konektatuago dauden azpiegiturak eraikitzeaz gain (garraiokoak, digitalak, energetikoak, etab.), EBk hainbat azpiegitura eta garraiorako lotura gehiago garatu beharko lituzke inguruko herrialdeekin eta munduaren gainerako herrialdeekin. European garraio-bideak, azpiegiturak eta sarrera-puntuak dibertsifikatuz gero, mendekotasun kaltegarriak murriztuko dira.

Ildo horretan, EBk bere nazioarteko partaidetza hedatu beharko luke. Baliabide, produktu eta teknologia jakin batzuetan oinarritutako asmo handiko merkataritza-akordio globalak edo akordio mugatuagoak egitea oso garrantzitsua da balio-kateak dibertsifikatzeko eta, beraz, mendekotasunak (strategikoak) murrizteko. Eskualdeek euren ETEak nazioartekotzeko laguntza ere handitu beharko lukete, inportazio- eta esportazio-merkatu baten edo kopuru mugatu baten gehiegizko mendekotasun-arriskuen gaineko sentsibilizazioa eta horien konponbideak barne. Merkataritza sustatzeko eskualdeko erakundeen arteko lankidetzak eta jardunbide egokien trukeak gaitasuna eta sentsibilizazioa handitzen lagun dezakete.

Gainera, eskualdeek azter lezakete nola erabili kontratazio publikoa negoziatzia ahalbidetzeko eskaintza hobek material kritikoen, teknologien eta energia-iturrien. Hornikuntza-katearen erronkei kolektiboki ekitean, EBk haren mundu-eragina aprobeatza dezake.

Hornidura-katearen erronkak taldean lantzean, EBk mundu mailan duten inpaktuari onura atera ahal izango dio. Diru-laguntzak lortzeko lasterketa baten ondorio kaltegarriak saihesteko, ezinbestekoa da merkatu bakarra babestuko duen estatuko laguntzen esparrua izatea.

Halere, estatuko laguntzen erabilera justifikatuta egon daiteke egoera mugatu batzuetan, merkatuko akatsetan, industria lehiakortasun globalaren, krisialdien edo merkatu berrietara hedatzearen testuinguruan sakon aldatzen denean, esaterako. Eskualde guztiek eduki beharko lituzkete aukera berak horiek erabiltzeko. Halere, beti ondo zehaztutako esparruetan gertatzen dira; arauak argiak eta denboran mugatuak dira, eta, era berean, eskualde eta estatu kide guztietan aplikatu behar dira, berdintasuna bermatzeko. Gainera, EBk nazioarteko bazkideekin ere lan egin behar du industria-garapenerako bidezko lehiakortasun-baldintzak sustatzeko Estatuko laguntzei buruzko arauak (aldeaniztunak) aplikatzeko.

Gure lehiakortasuna mundu mailan ere hobetu daiteke, garapen teknikoarekin konprometituta jarraitzen badugu eta gure merkataritza-bazkideei sustatzen badiegu. Estandar zatituak oztupo osagarriak dira nazioarteko merkataritzarako. EBk modu proaktiboan lan egiten badu arau berriak garatzeko (adib., sortzen ari diren teknologietan, hala nola hodeiko konputazioan eta ibilgailu autonomoetan, antzeko ideiak dituzten bazkideekin, estandar altu eta uniforme batzuk bermatuz, gure enpresetarako erabilerrazak. Horrek beste behin ere EBri abantaila konparatiboa emango lioke.

Beraz, eskualdeen erronken aurrean munduko lehiakortasuna eta konektibitatea indartzeko, beharrezkoa da ikuspegi kolaboratiboa eta estrategikoa. Lankidetzaren aukerari esker, estrategia proaktiboekin eta EBren laguntzarekin batera, Europako eskualdeek, bizirik irauteaz gain, aurrera egingo dute mundu interkonektatu batean.



Eskualdeen arteko kooperazioa



1. Kontratazio publikoak kostuen eraginkortasuna lortzeko duen eginkizuna aztertzea, akordio hobek negoziatzea eta hornikuntza-katearen erronkei taldean heltzea
2. Eskualdeko ekosistemen eta EBko talde-politikaren arteko loturak indartzea, berrikuntza eta lehiakortasuna sustatzeko
3. Eskualdeen arteko lankidetzaren eta ezagutza-trukearen erraztea EB osoarentzat onuragarriak diren sinergiak sortzeko
4. Eskualdeen arteko konektibitatea eta lankidetzaren hobetzeko baliabideak esleitzea

5. Europako eskualdeak etorkizunerako gaituta

Europako eskualdeek erronka ugari dituzte eskumenen eta lan-merkatuaren arloan, eta horrek munduko ekonomiaren izaera konplexua islatzen du. EBk aurre egin beharreko erronketako bat demografiarekin lotuta dago, bereziki etorkizun hurbilean garatuko den eta talentu gazteen altxorrari eragingo dion gainbehera demografikoarekin. EBn lan egiteko adinean dauden biztanleak hurrengo urte eta hamarkadetan gutxitzea espero da, 2050erako 35 milioi pertsona gehiago gutxituz³. EBko eskulana da, gaur egun, bere historiako prestatuena da, nahiz eta kualifikazioen arteko desorekak etengabeak diren, eta trantsizio berde eta digitalen aldean handitzea espero den. Langile kualifikatuen eskuragarritasuna da, oraindik ere, arazorik garrantzitsuenetako bat EBko ETE-en laurden batentzat, 2019ko SAFE inkestaren arabera⁴.

2023. urtea Gaitasunen Europako Urtea izendatu zen, eta helburu berri bat ematea du xede, EBk 2030erako dituen Europako Gizarte-eskubideen Zutabeko helburu nagusiak lortzeko, hau da, urtero, gutxienez, helduen % 60k prestakuntza jasotzea, eta % 78 lanean egotea. Eskulanaren eskasiari aurre egin behar diotenean, kualifikazioen arteko desadostasunak are eta larriagoak dira, eta beharrezkoa da langileek euren trebetasunak eta gaitasunak hobeto ulertzea, oro har, egungo eta etorkizuneko lanpostuetarako behar diren trebetasunak hobeki ulertzeko, bai eta kualifikazioen hobekuntza eta birziklapena lantokian nola ezarri ulertzeko ere. Tresnak hobeto egokitzea eta alderdi interesdun guztien arteko lankidetzeta, enplegu-zerbitzu publikoena barne (SPE), funtsezkoak izan daitezke kualifikazioetako desorekei aurre egiteko.

Kalitate eskaseko enpleguen auzia ere bada, faktore hauen ondorio: lan-baldintza txarrak, soldata apalak eta kontratu ezegonkorak, garunen ihesa, lan-bizitzaren eta bizitza pribatuaren arteko oreka falta eta garapen falta edo sustapen profesionaleko aukerak. EBko eskualdeak, askotan, «talentuaren aldeko gerran» egoten dira, eta talentu-erreserba mugatuagatik lehiatzen dira (teknikoa eta berdea). Gaitasun teknikoak, gaitasun sozialak eta eta zeharkako gaiak dituzten langileak izatea funtsezkoa izango da trantsizio bikien bideragarritasunerako eta EBren lehiakortasunerako, eta kualifikazioak birziklatu eta hobetzeko beharra azpimarratuko da. Are gehiago, etorkizunerako beharrezkoak diren eskumenen aurreikuspena funtsezkoa izango da, bereziki ETE-entzat. Beraz, talentua garatzeko tranpa bati aurre egiten dioten Europako eskualdeak erresistenteagoak eta erakargarriagoak izatea ezinbestekoa da EBren lehiakortasunerako eta inor eta ezer atzerago uzteko konpromisoa hartzeko.

Eskualdeen arteko kooperazioa



1. Profesional kualifikatuak erakartzeko bikaintasun-zentroak sortzen laguntzea
2. EBko eskualdeen artean lankidetzestrategiak sortzea, ETE-ei gaitasunak eta talentua erakartzeko
3. Hezkuntza-erakundeen eta enpresen arteko elkarteak sustatzea
4. Lan-merkatuan behar diren kualifikazioen bilakaera aurreikusteko datu bateratuak



Talentua erakartzea eta igotzea

Europar Batasunean kualifikazioen urritasunari eta talentuaren igoerari aurre egitean, hainbat neurri har daitezke. Lehenik eta behin, garrantzitsua da kalitatezko lanpostuen erabilgarritasuna sustatzea. Lanpostu horiek nahiko ordainsari dute, lan-merkatuaren segurtasuna eta lan-ingurunearen kalitatea⁵ langile mugikorrenzat (EB). Horrek lan-bizitza orekatua eta lan malgutasuna hartzen ditu barne. Neurri horiek talentua duten pertsonak (eta, batzuetan, haien familiak) erakartzea espero da, profesional kualifikatuen atxikipena eta kontratazioa hobetzeko. Anbizio handiz, Massachusettseko Teknologia Institutuaren (MIT) antzeko zentro europar bat sor liteke, goi-mailako ikerketa eta garapen teknologikoaren alde lan egiteko.

Ikerketa berritzailea sustatuko luke, baina mundu osoko lehen mailako talentua erakartzen duen itsasargi gisa ere balioko luke. Era berean, goi-mailako unibertsitateak eta ikerketa-zentroak garatu beharko lirateke EB osoan, profesional eta ikertzaile kualifikatuak erakartzen dituzten bikaintasun-zentroak sortuz.

Gainera, sektore edo sektore berberen barruan enpresak lotzen dituzten talentu gazteentzako mugikortasun-programak aplikatzea ekimen baliotsua izan liteke banakako enpresen erakargarritasuna handitzeko. Gainera, EBk lagundutako edukiak prestatzeko plataforma bat ezartzeko aukera dago, eskualdeetako eskaerei erantzunez mugikortasuna errazteko.

EBren laguntza



1. Massachusettseko Institutu Teknologikoaren (MIT) antzeko zentro europarra ezartzea
2. EB osoko goi-mailako unibertsitateei eta ikerketa-zentroei laguntzea
3. Erkidegoko ondarea harmonizatzea legezko migrazioaren arloan
4. Erasmus+ hedatu hezkuntza dualerako

Gaitasunak aintzatesteko esparru estrategikoak

Funtsezkoa da gaitasunak eta kualifikazioak behar bezala ulertu eta baloratzea, kualifikazioen eskaintzaren eta lan merkatuaren beharren arteko elkarrekotasun hobea lortzeko. ESCOren erabilera optimizatu behar da, Europako gaitasun, kualifikazio eta okupazioen sailkapen eleanitza. Halaber, bizitza osoan zehar trebetasunak lortzen eta eguneratzen lagun diezaieke pertsonai, hezkuntza-mota eta -maila desberdinen artean, hezkuntzaren eta enpleguaren artean, herrialde barruan eta horien artean mugitzen diren heinean.

Enpresak langile kualifikatuak erakartzeko borrokan ari diren heinean, EBk estatu kideei lagunduko die nazioarteko talentua erakartzen eta atxikitzen, aurkeztu berri den EBko talentu-zorroaren bidez. Oraindik ikusi beharko da nola doan praktikan. Hori lortzeko, Europako politikagileek haratago bilatu behar dituzte lan-aukerak eta lege-ibilbideak,

integrazioari, lan-merkatuko aukeren kalitateari eta laneko mugikortasunari buruzko eztabaida zabalagoan parte hartzeko. Testuinguru horretan, EBko legezko migrazioaren egungo ondare zatikatua eta mugatua kontuan hartuta, EBk ongi definitutako eta zehaztutako EBren migrazio-esparrua eskaini behar du, nazioarteko talentua erakartzeko eta ETE-ek etorkizuneko langile potentzialak identifikatzeko modu errentagarri gisa arrazionalizatzeko.

ETE-en langile trebatuak atzitzeko gaitasuna

Enpresa txiki eta ertainek zailtasunak izaten dituzte langile kualifikatuak kontratatu eta erakartzeko eta ezagutzak erakundearen barruan gordetzeko, batez ere enpresa handiekin lehia. Egoera horrek EBko eskualdeen arteko lankidetzaren estrategien premia larria azpimarratzen du. Datuak bateratuz, Europako eskualdeek lan-merkatuan behar diren gaitasunen bilakaeran parte har dezakete, eta, hala, hezkuntza-erakundeek eta prestakuntza-programek beren ikasketa-planak ETE-en eskaeretara egokitu ditzakete, baina baita beste enpresa batzuei ere. Gainera, eskualde baten beharretara egokitutako pertsonengan eta prestakuntza programetan oinarritutako ikuspegiak eta horretarako behar den finantzaketa funtsezkoak dira. Horri esker, Europako eskualdeek eskulan anitz eta dinamikoa sortu ahal izango dute, lan-merkatuaren eta aro digitalaren bilakaerak dakartzan erronkei aurre egiteko, inor baztertu gabe. Europako eskualdeek hezkuntza- eta prestakuntza-erakundeen, enpresen eta interesa duten beste alderdi batzuen arteko elkarteak sustatu behar dituzte, irakasten diren gaitasunak ETE-en beharretara egokitzen direla bermatzeko. Are gehiago, dauden programen aukerak baliatuta, esaterako, hezkuntza dualerako Erasmus+ delakoa, hezkuntzaren eta ETE-en arteko zubiak eraiki daitezke eta esperientzia praktikoak eskaini.

Ondorioak

Txosten honek nabarmentzen du Europako eskualdeek zeregin garrantzitsua dutela EBk gaur egun dituen erronkei aurre egiteko, bai barnean, bai kanpoan. Txostenean, bost gako arlo definitzen dira esku hartzeko: Etorkizunerako prest dauden ETEak, europar eskualdeak mundu digitalerako prest, Europak trantsizio jasangarrirako prest eta eskualde europarrak etorkizunerako gaituta.



ETEak etorkizunerako prest

- Ekosistema erresilienteak eraikitzea eta konektatzea, eta araudi-esparru adimentsu bat ezartzea
- ETEak trantsizio berdean



Mundu mailan lehiatzeko prest dagoen Europa

- Berrikuntza eta kolaborazioa sustatzea I+G arloan
- EBren posizioa sendotzea balio-kate globalean



Europar Eskualdeak mundu digitalerako prest

- Datuen gobernantza harmonizatzea: berrikuntzaren eta pribatutasunaren babesa orekatzea
- Eten digitala gaituztea
- Teknologia digitaletan konfiantza



Europako eskualdeak etorkizunerako gaituta

- Talentua erakartzea eta igotzea
- Gaitasunak aintzatesteko esparru estrategikoak
- ETE-en langile trebatuak atzitzeko gaitasuna



Europar Eskualdeak trantsizio jasangarrirako prest

- Baliabideen kudeaketan eta teknologia berdearen garapenean laguntzea
- Mentalitate zirkular bat sustatzea
- Araudi jasangarria eraikitzea

Haren gomendioak anbizio handikoak dira, baina aplikagarriak, eskualdeen arteko lankidetzarako aukerak eta Europako eskualdeek EBren laguntza gehien behar duten esparruak nabarmentzeko. Eskualdeetako eta EBko politiketan aurreikuspen-ariketa estrategikoak sartzearen garrantzia nabarmentzen da, mugaz gaituzko lankidetzarako esparruak ezarriz, trantsizio berde eta digitalen arteko tentsioei helduz, ETE-en hazkundea eta haien nazioartekotzea sustatuko duen ingurunea sortuz eta gaitasunak garatzea eta talentuak erakartzea, eta epe luzeko helburuekin eta EBren lehiakortasunaren hobekuntzarekin konpromisoa hartuta.

Txosten honek EBren lau erresilientzia-dimentsioei buruz eskualdeetako administrazioek batera egindako aurreikuspen estrategikoaren emaitzak aurkezten ditu. Ariketa honi esker, gobernuen liderren ikuspegi hartu-emanan bideratu da "Fit for the Future: Global Challenges, Regional Solutions" topaketan, Flandriako Ministro-Presidenteak antolatua 2024ko apirilaren 18an. Liderren Bileran, Europako eskualde berritzaileetako gobernu-buruek seinale sendo bat bidali zioten EBri: Europako eskualdeek palanka garrantzitsuak dituzte munduko erronkei aurre egiteko. Hori adierazpen politiko batekin amaitu zen, eta hemen irakur dezakezue:



Eranskina

ESKUALDEEN PRAKTIKA ONAK/EGOKIAK:

1. Athumi: Datuen kolaborazioa - Flandria

1. Xedea eta helburu nagusia:

- Athumi, datu-zerbitzuen enpresa aitzindaria, Flandriako Gobernuak abiarazia, oparotasun-aro berri bat sustatzen ari da, banakakoek eta enpresek datuen gainean duten kontrola defendatuz.
- Enpresaren xede nagusia datuen lankidetzaren seguruia sustatzea eta erraztea da, enpresen barruan datu-soluzio berritzaileak ugaritzea azpimarratuz, eta, aldi berean, datuen kontrol zorrotza egiten da.

2. Datuen Kudeaketa Berritzaileko ikuspegia:

- Oinarrizko estrategia herritarrak beren datu pertsonalak modu seguruan partekatzeko gaitzea da, modu adimentsuan diseinatutako datu-gangen bidez. Horrek datuak kudeatzeko ohiko jardueretatik urruntzea dakar.
- Athumik neurrirako soluzioak eskaintzen ditu. Herritarrek datu-ganga seguruak erabiltzeko aukera izango dute, eguneroko lanak arrazionalizatuz, hala nola, datuak partekatuz balizko enplegatzaileekin, autoak alokatzen dituzten konpainiekin, osasun-zerbitzuen hornitzaileekin, bankuekin, etab.

3. Banako Kontrola eta Pribatutasuna indartzea:

- Athumik datuen banakako kontrola azpimarratzen du, eta pertsonari autoritatea ematen die zer datu partekatu erabakitzeko, norekin eta zein egoera zehaztuz. Ikuspegi horrek pribatutasun indibidualaren babes maximoa bermatzen du, datuak trukatzeko jardueretan ahalduntze-sentsazioa sustatuz.

4. Elkarte estrategikoak eta ekosistemen integrazioa:

- Athumiren arrakastarekiko konpromisoa nabaria da Randstad, Microsoft eta Doccle bezalako erakundeekin dituen elkarreko estrategikoetan.
- Itsme®-rekiko lankidetzaren bereziki nabarmena da, datuetarako sarbide seguruia eta itsme® aplikazioaren bidez partekatzeko adostasuna errazten baititu, datuen segurtasunaren eta erosotasunaren ikuspegi holistikoa erakutsiz.

2. i2CAT – Interneten inguruko Ikerketa Zentroa – Katalunia

1. Xedea eta helburu nagusia:

- Bartzelonan egoitza duen ikerketa eta berrikuntza zentro batek etorkizuneko gizarte digitala diseinatu eta eraikitzeke konpromisoa hartu zuen, arlo hauetan abangoardiako I+Gko tokiko eta Europako proiektuetatik lortutako ezagutza aprobetxatuta: 5G/6G, IoT, teknologia murgildu eta interaktiboak, zibersegurtasuna, adimen artifiziala, bloke-katea, komunikazio espazialak eta gizarte digitala.
- i2CAT-ek etorkizuneko gizarte digitalaren diseinua egiteko desafioa zuzendu nahi du, teknologia digitalen aurrerakuntzan ikerketa eta berrikuntzan oinarrituta.
- Misioak bultzatutako ezagutza sustatzen du zentroak, enpresa-erronkak konpontzeko, baterako sorkuntzako irtenbideak sortzeko eragin eraldatzailearekin, herritarrak ahalduzko gizarte-berrikuntza digital ireki eta parte-hartzailearen bidez, eta ekimen aitzindari eta estrategikoak sustatzeko.

2. Helburuak:

- Politika digitalak definitzen eta aplikatzen laguntzen duten ekimenak zuzentzea eta kudeatzea
- Berrikuntza sustatzea industriarentzat eta industriaren inguruko ekosistementzat
- Teknologia transferentzia indartzea

3. Ikerketa:

- i2CAT leku nabarmena da I+Gko Europako ekosistemaren barruko teknologia aurreratu digitalen ikerketan eta garapenean. Orain arte, i2CAT Fundazioak 23 proiektu lortu ditu Horizonte Europa (2021-2027) finantziazio-programaren barruan, 9,5 milioi eurotik gorako aurrekontuarekin.

4. Ikerketa-gaiak:

- Sare eta zerbitzu adimentsuak
- Murgiltze-teknologiak eta teknologia interaktiboak
- Adimen artifizial banatua
- Zibersegurtasuna eta Blockchain delakoa
- AAK zuzendutako sistemak
- Space Comms

5. Berrikuntza Enpresa-garapena:

- i2CATek aliantza estrategikoak sustatzen ditu enpresa pribatuekin eta berrikuntza-ekosistemetako eragileekin, eremu hauek sortzeko, besteak beste: ingurune adimenduna, osasun elektronikoa, 4.0 industria, mugikortasun autonomo eta konektatua eta sormen-industriak.

3. Hidrogenoaren Euskal Korridorea: Energiaren Etorkizunaren Buruan - Euskadi

1. Xedea eta helburu nagusia:

- Hidrogenoaren Euskal Korridorea energia-trantsizioaren buru izateko konpromisoa da, hidrogenoa abangoardian dagoela, deskarbonizazioa eta hazkunde ekonomikoa bultzatzeko.

2. Lankidetzaren publiko-pribatua:

- 120 erakundek baino gehiagok, enpresak, zentro teknologikoak eta tokiko agintariak barne, elkarte publiko/pribatu sendoa osatzen dute, Korridorearen ekimenak bultzatzen dituenak.

3. Balio-katearen lankidetzaren integrala

- «Hidrogeno-bailaren» aitzindari gisa, hidrogenoaren balio-katearen bidezko lankidetzaren sustatzen du korridoreak, hasi ekoizpenetik eta aplikazio aurreratuetan erabiltzeraino.

4. Inpaktu ekonomikoa eta ingurumenekoa:

- Ekimenak 3.000 milioi euro mobilizatzea espero da, zuzeneko 1.300 lanpostu eta zeharkako 6.700 lanpostu baino gehiago sortuko ditu, eta emisioak urtean 1.600.000 tona baino gehiago murriztuko ditu.

5. Lidergo berritzailea eta industrial:

- Interesa duten enpresa eta alderdien parte-hartzearen bidez, Korridoreak hidrogenoaren teknologia berritzaileetarako zentro gisa ezarri nahi du, eta eskualdeko garapen ekonomikoari eta munduko industriaren lidergoari lagundu nahi dio.

4. #upperVISION2030 Ekonomia eta ikerketarako estrategia - Upper Austria

1. Xedea eta helburu nagusia:

- Mundu-lehian bizirik irauteko eta epe luzera Upper Austriak enpresentzat, industriarentzat eta ikerketarentzat duen bideragarritasuna bermatzeko, Goi Austriaren etorkizunari buruzko ikuspegi bateratua behar da, joera eta garapen berrietara malgutasunez egokitzeko.
- #upperVISION2030 kokalekuko bazkideen ekintzarako esparru estrategikoa da, eta urteko zikloan neurrien etengabeko planifikazioan laguntzen du.

2. Metodoa

- Ekonomia- eta ikerketa-estrategia birdoitzeak helburu hauek ditu:
 - a. Egungo ekonomiaren joerak eta joera sozialak eta teknologikoak aztertzea
 - b. Leku arin eta mugikorraren garapena
 - c. Lokalizazio-zentroko bazkide guztien koordinazioa funtsezko gaietan eta
 - d. Gardentasuna sortzea

3. Adibide zehatz bat:

- Ekintza-eremuetan zehaztutako helburu estrategikoen aplikazio zehatzaren adibide bat da "Technology Roadmap: Sustainable Plastics Solutions".
- Goi Austria plastiko jasangarriko eta ekonomia zirkularreko soluzioetarako eskualde eredu gisa posizionatzeko ikuspegi oinarrituta, ikuspegi hori lortzeko moduari buruzko prozesu egituratua hasi zen. 2030erako ibilbide teknologikoaren orri bat sortzea zen helburua, gai zehatzak eta ekintza-aukerak bilduko lituzkeena.
- Balio-katean interesa zuten alderdiekin egindako tailerrek hiru gai espezifiko sortu zituzten: 1) Design4Circularity, 2) Bilketa/Sailkatze/Birziklatzea eta 3) Materialak/Teknologia/ Ikerketa eta Garapena.
- Ibilbide-orria estrategikoki integratuta dago Plastikoen Kokalekua 2030 delako ekimenean, RTI delako jardueren hiru zutabe nagusiak, kualifikazioak eta irudiak barne.

Oharrak

¹EUROPAKO BATZORDEA, 2020, Strategic Foresight Report

<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/PDF/?uri=CELEX:52020DC0493&from=EN>

²The EU Ecolabel is the only EU-wide ISO 14024 Type I ecolabelling scheme. Europa osoan ezaguna da, hainbat irizpide ditu eta produktuek bizi-ziklo osoan dituzten ingurumen-inpaktu nagusiak aztertzen ditu, hasi lehengaien erauzketatik eta ezabatzeraino.

³BUSINESS EUROPE, 2023, Analysis of Labour and Skills Shortages, [2023-10-23 analysis of labour and skills shortages.pdf \(business-europe.eu\)](https://www.busesseurope.eu/2023-10-23-analysis-of-labour-and-skills-shortages.pdf)

⁴EUROPEAN COMMISSION, 2020, An SME Strategy for a sustainable and digital Europe, [SME Strategy \(europa.eu\)](https://ec.europa.eu/sme/)

⁵OECD, Job Quality, [Job quality - OECD](https://www.oecd.org/jobs/)